



Caroline Phillips Okzitaniako zarrabetearekin eta Mixel Ducau gitarrarekin, *Duo* diskoko kantuak aurkezterakoan Baionan. NICOLAS MOLLO

## Beste bidaia proposamen bat

Caroline Phillips eta Mixel Ducauren taldeak bigarren diskoa kaleratu du: 'Duo', munduko musika estilokoak

**NORA ARBELBIDE**  
Baiona

Aitzineko *Oihan* diskoaren bide berdintsutik doa *Duo*, Bidaia taldearen lan berria. Munduko musika sailkapenean sartzen den musika egiten dutela dio Caroline Phillipsek: «Lehen diskoan gure estiloa sortu genuen, gure kontzeptua. Hau, bigarrena, jarraipen naturala da. Euskal Herriko erritmoak hartu ditugu, izan dadin zortzikoak, banakoa edo beste, eta hortik melodiak sortu ditugu. Doinu tradizionalei beste musikaren eraginak gehitu dizkiegu. Batzuk Europa ekialdekoak dira; besteak, oraino urrunagoak. Denetarik bada».

Aldi honetan, haatik, izenak berak dioen bezala, taldeko kideen kopurua txikitu dute eta orain

biga baizik ez dira: Michel Ducau eta Caroline Phillips bera. Lehen musikari gehiago ziren, eta kontzertuak emateko eta, ez zen bidezpada erraza. Bi baizik ez direla, eta ondorioz fresak edo gastuak murrizten direla, emanaldien kopurua goititzea espero dutela zehaztu du Phillipsek. Bien bitartean finkatu dituzten artean maiatzaren 16koa dago. Saint Martin de Seignanxen dira arituko, eta uztailean beste bi emanaldi dituzte, Euskal Herrian.

Hori bai, nahiz eta bi izan, beti instrumentu anitz daude, kasik denak Ducauk ematen dituenak. Ondorioz, diskoa osatzen duten hamabi zatiak soinuz aberatsak dira. Kantuan ere bien ahotsak entzun daitezke. Bi soinua nagusitzen dira, halere. Batetik, alboka, hori ere Ducauk emana, eta bestetik, Okzitaniako zarrabetea, hori Phillipsen eskuak animatua. Zarrabetea mila urtetik gorako instrumentua da, eta Europa osoan aurkitzen da.

Horien ondoan, badira banbuz-

ko klarineta, gitarraren kutzaren gaineko perkusioak, gitarra apal eta beste ere: «Bidaiatzen duen Euskal Herri baten isla eman nahi dugu». Kantuak eta musika zatiak aldizkatzen dira. Benito Lertxundiren *Erribera-z* eta Bizkaiko *Amarren Alabak* kantu tradizionalaz aparte, zati gehienak sorkuntzak dira. Eta horiek ere interpretazio bereziak dira.

Sorkuntzetan dago *Where is the rain*, Phillipsek idatzi eta abesten duen kantua. Kolonen aitzineko Ameriketako herriak eta oihan tropikalen suntsiketa aipatzen ditu. Bada *Basamartza* lehen kantua ere, Zugarramurdiko harpe bizidunen garaietara gonbidatu nahi duena. Hizkuntzetan, euskara nagusi da, baina batzuetan inge-

**«Bidaiatzen duen Euskal Herri baten isla eman nahi izan dugu, euskal doinuak kanpokoei nahasiz»**

CAROLINE PHILLIPS  
BIDAIAKO KIDEA

leseko kantuak ere badituzte eta batzuetan arabiera ere erabiltzen dute, *Rahma Khawa* kantuan adibidez. Hor, exodoa eta immigrazioa aipatzen dituzte. Etorkinaren ikuspegitik kontaktuak dira hitzak. Ondotik heldu den kantuak ere, *Albokasbah-ek*, ekialdeko erresumetara eramaten ditu euskal margetar dantzak. Badira, honen gisara, beste batzuk ere dantzatzeko gogoak pizten dutenak, erritmo handikoak. Baina badira zati lasaigoak ere. Demagun *Secret Lovers*. Erdi Aroko eta Indietako giroa nahasi nahian aritu dira horretan. Oro har nabari da aspalditik musika munduan dabilen taldea dela eta esperientziak elkar gurutatzeko gosez dagoela.

Hiru urteko lanaren emaitza da diskoa. Produktzioarako Christophe Ithurritzeren laguntza izan dute. Dena etxeko estudio batean grabatu dute, 2006ko larrazkenean, eta ondotik Angeluko Amanita estudioetan nahasi eta masterizatu. Banaketa Gor diskoetxeak dauka bere gain Euskal Herrian.

## 'Gernika'-ren 24 zirriborro jasoko ditu Gernikako herriak

**ERREDAKZIOA**  
Bilbo

Pablo Picasso *Gernika* koadroa prestatzeko eginiko 24 zirriborro utziko dizkio Madrilgo Reina Sofia museoak uztailetik irailera bitartean Gernikako herriari. Museoa-ren patronatuak hartutako erabakiaren berri Carmen Calvo Espainiako Kultura ministroak eman zuen atzo Senatuan. Gernikak jasoko dituen 24 lanetatik 23 paper gainean eginiko marrazkiak dira, eta bestea, *Madre con niño muerto* deituriko oliboa.

Oraindik zehaztu gabe daude bilduma uzteko baldintzak, baina, Udalaren eskaerei erantzunez, uztaile eta iraila bitartean utziko dituzte zirriborroak. Hain zuzen, bi hilabete eta erdi izango lituzke Udalak erakusketara egiteko. «Honek erakusten du Euskal Herrian egon daitekeen interesa kontuan hartzen dugula eta segurtasunari lotutako irizpide teknikoak erabiltzen ditugula koadroa ez uzteko», adierazi zuen Calvok.

## Tolosako La Rue des Pavots taldeak irabazi du EHRZ lehiaketa

**MUSIKA** = Larunbatean Miarritzeko Atabal aretoan EHRZ lehiaketako finala iragan zen, eta Tolosako (Okzitania) La Rue des Pavots taldeak zuen irabazi. Ondorioz, ekainaren 30ean, larunbatearekin, festibalean jotzeko parada izanen du.

## Ikus-entzunezko gidioen ikastaroa Anduezarekin

**ALDUDE** = Euskal Idazleen Elkarteak eta Haize Berrik antolaturik, ikus-entzunezko gidoiak idazteko ikastaroaren bigarren eguna maiatzaren 17an izanen da. Jon Anduezaren *Bernar* film laburra aztertuko dute, planoak, musika, sinboloak...

## Arte Eder museoak De Haesen obrak jarri ditu ikusgai Mallorcan

**ARTEA** = Bilboko Arte Eder museoak bere arte bildumako Carlos de Haesen obrak ikusgai jarri ditu Mallorcan Arte Casal Sollerik gunean. De Haesen (1826-1898) 58 grabatuk eta marrazkiak osatzen dute erakusketa.

# Gari Beltza

## Ballet Biarritz junior 2

Programa berria!

**GAZTESZENA - DONOSTIA**

Sabado 19 / 05 / 2007 Larunbata - 18.00

Domingo 20 / 05 / 2007 Igandea - 18.00

Sarreraren sorketa sarrate de entradak



Servikutza



Telekutza  
943 411 308

www.kutza.net



Dantzaz Elkartea · Tel. 943 29 80 27 · dantzaz@dantzaz.net